

AZPEITIA / Filmak eta dokumentalak aukeran

Azpeitiko zine klub taldeak Betharram aretoan eskaintzen dituen pelikula guztiak Udal Liburutegian dituzte aukeran

Ia mila DVD dituzte aukeran, bai haurrentzako bai helduentzako

Azpeitiko Udal Liburutegiak multimedia material gehiago du hil honetatik aurrera, bai helduentzako bai haurrentzako DVD eskaintza zabaldu egin baitu. Izan ere, *Ta3. zine klub taldeak* doan eman die film sortarekin osatu dute euren bilduma. Hau da, Betharramdarretako DVD emanaldietan botatako hainbat pelikula Udal Liburutegira eraman dituzte, nahi duten herritarrek eskura izan ditzaten.

Pixkanaka zabaltzan ari da, beraz, Uda Liburutegiko multimedia sailaren eskaintza; dokumentalak, filmak, diskoak...biltzen dituena: Baina helduek baino hurrek estimazio handiagoa diote zerbitzu honi: "Helduek ere hartzen dituzte DVDak etxean ikusteko, baina haurren sailekoek dute benetan arrakasta", diote Udal Liburutegikoek.

Oparitzen jarraitzeko asmoa

Ta3. zine klub taldekoek, helduentzako 31 film eta haurrentzako 11 film oparitu dizkiote Udal Liburutegiari orain arte eta, gainera, aurrerantzean ematen dituzten DVDak ere Liburutegiari oparitzeko asmoa dute: "Gure asmoa, urtez urte liburutegiaren DVD eskaintza joatea da. Horretarako, urtean zehar Betharram aretoan ematen ditugun filmak oparituko dizkiogu Udal Liburutegiari, edonoren esku egon daitezen".

Ia mila DVD

Gaur egun Enparan Dorretxean dagoen liburutegian helduentzako 397 pelikula eta 200 dokumental daude jasota, eta haurrentzako, berriz, 340 DVD. Erabiltzaileek hiru multimedia produktu eta hiru liburu har ditzakete aldi berean. Multimedia elementuak astebetetz eduki ditzakete etxean, eta itzultzeko epea behin luzatu dezakete, "gehienez 15 egunetan izan ditzakete etxean". Liburuak, aldiz, hamabost egunetarako hartu daitezke, eta itzultzeko epea luzatzeko aukera ere badago.